



Honekin batera bidaltzen dut beheko gaia jorratzen duen araugintzako ebaluazio txostena, hala jasotzen baitu 6.4 artikuluan (uztailak 3ko 3/2013 Foru Arauaren bidez aldatua) Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde, gobernu eta administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak:

4/2021 Foru Dekretu-Araua, uztailaren 27koa, Ticket-BAI betebeharraren borondatezko ezarpena sustatzeko presazko zerga neurriei buruzkoa

De conformidad con lo previsto en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, modificado por Norma Foral 3/2013 de 3 de julio, se adjunta informe de evaluación normativa referido a:

Decreto Foral-Norma 4/2021, de 27 de julio, de medidas tributarias urgentes de fomento de la implantación voluntaria de la obligación TicketBAI.

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA
EL DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**



Araugintzako ebaluazio txostena

4/2021 Foru Dekretu-Araua, uztailaren 27koa, Ticket-BAI betebeharraren borondatezko ezarpena sustatzeko presazko zerga neurriei buruzkoa

Txosten honen bitartez bete nahi da uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 6.4 artikuluan ezarritakoa, bertan xedatzen baita zenbait foru araturen kasuan Batzar Nagusiek araugintzako ebaluazioa egin behar dutela, indarrean jarri eta urtebetera.

Sarrera

Azaroaren 6ko 3/2020 Foru Arauaren bidez, sistema informatiko bat erabiltzeko betebeharra ezarri zen, ondasun emateak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa,

Informe de evaluación normativa

Decreto Foral-Norma 4/2021, de 27 de julio, de medidas tributarias urgentes de fomento de la implantación voluntaria de la obligación TicketBAI

A través de este informe se trata de dar cumplimiento al mandato legal recogido en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, según el cual, ciertas normas forales serán sometidas al procedimiento de evaluación normativa por las Juntas Generales, una vez transcurrido un año desde su entrada en vigor.

Introducción

A través de la Norma Foral 3/2020, de 6 de noviembre, se estableció la obligatoriedad de utilización de un sistema informático que garantiza la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los



trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen: TicketBAI (TB) betebeharra.

Sistema informatiko berri horiek lehendik erabilitakoen aldean egokitzeak kostu ekonomikoa dakar. Betebeharra indarrean sartu aurretik behartutako ahalik eta pertsona gehien sar zitezten, aipatutako 3/2020 Foru Arauak, aldi baterako zerga pizgarri batzuk ezarri zituen (egindako inbertsio eta gastuen %30eko kenkaria kuotan, gutxieneko zenbateko batzuekin eta gehieneko mugekin).

Ondoren, martxoaren 23ko 2/2021 Foru Dekretu-Arauak, betebeharra borondatez betetzea are gehiago bultzatzeko helburuarekin, %30etik %60ra igo zuen kenkariaren portzentajea eta 500 eurotik 1.500 eurora gutxieneko oinarria, betetze hori 2021/11/01era aurreratzen zutenentzat. Era berean, txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkarian portzentaje hori aplikatzea ahalbidetu zen, baldintza berdinetan.

Era berean, ezarpen egutegi bat onartu zen, nahitaez bete beharrekoa, behartutako

ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios: obligación TicketBAI (TB).

Adaptar esos nuevos sistemas informáticos frente a utilizados con anterioridad supone un coste económico. Con el fin de que con anterioridad a la fecha de la entrada en vigor de la obligación se incorporase el mayor número posible de personas obligadas, la citada Norma Foral 3/2020 estableció unos incentivos fiscales de carácter temporal (deducción en la cuota de un 30% de las inversiones y gastos realizados, con una serie de importes mínimos y de límites máximos)

Posteriormente, el Decreto Foral-Norma 2/2021, de 23 de marzo, con el objeto de impulsar, todavía en mayor medida, el cumplimiento voluntario de la obligación, incrementó el porcentaje de deducción del 30% al 60% y la base mínima de 500 euros a 1.500 euros, para quienes anticiparan dicho cumplimiento al 01/11/2021. Asimismo, se permitió la aplicación de ese porcentaje incrementado, con las mismas condiciones, en la deducción para la transformación digital del comercio minorista.

Asimismo, se aprobó un calendario de implantación que se debe cumplir



pertsona bakoitza dagoen jarduera epigrafearen arabera. Eta testuinguru horretan, egiaztatu zen behartuta dauden pertsona jakin batzuek sistemaren ezarpena 2 hilabete aurreratzearekin soilik aplika zezaketela kenkariaren portzentaje berri hori, eta behartuta zeuden beste pertsona batzuek, berriz, ezin zutela portzentaje handiago hori aplikatu, ezarpena 2 hilabete baino gehiago aurreratzen badute ere.

Diskriminazio hori saihesteko, txosten honetan aztertutako arauka, beste aurrerapen epe bat ezarri zuen nahitaez bete beharreko datari dagokionez, kenkari portzentaje handiago hori aplikatu ahal izateko.

Horrela, onartu zen %60ko kenkariaren portzentajea eta 1.500 gutxieneko oinarria aplikatzeko eskubidea izango dutela, TB betebeharra borondatez betetzea erabakitzen duten pertsona guztiek, betiere, nahitaez bete behar duten datarekiko gutxienez hilabete 1 aurreratzen badute, ezarrita duen egutegiaren arabera.

Bestalde, ikusi zen inkongruentzi bat zegoela TB sistema erabiltzeko betebeharrean, partzialki salbuetsita dauden eta sozietateen gaineko zergaren aitorpena aurkeztera behartuta ez

obligatoriamente, según el epígrafe de actividad en el que se encuentra cada persona obligada. Y en ese contexto, se constató que determinadas personas obligadas podían aplicarse ese nuevo porcentaje de deducción con solo adelantar 2 meses la implantación del sistema, mientras que otras personas obligadas no podían aplicarse ese mayor porcentaje, aún adelantado más de 2 meses la implantación.

Para evitar esa discriminación, la norma analizada en este informe, introdujo un nuevo plazo de anticipación respecto a la fecha de obligado cumplimiento, y así poder aplicarse se mayor porcentaje de deducción.

Así, se aprobó que tienen derecho a la aplicación del porcentaje de deducción del 60% y la base mínima de 1.500 euros, todas aquellas personas obligadas que opten por anticipar de forma voluntaria el cumplimiento de la obligación TB, como mínimo 1 mes con respecto a la fecha en que les resulte de obligado cumplimiento, según el calendario que ya tenga establecido.

Por otro lado, también se observó la existencia de una incongruencia en la obligación de utilización del sistema TB, en el caso de las entidades parcialmente exentas y



dauden erakundeen kasuan. Hori dela eta, zabaldu egin zen TB betebeharra betetzetik salbuesteko aukera, kolektibo horrentzat.

Sortutako ondorioak eta proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko lotura

Aztertutako foru dekretu-arauaren aplikazioan ez da arazorik egon. Sortutako ondorioak eta lortutako helburuak egokiak izan dira.

Araugintza garatzeko beharrak

Ez da inolako araugintza garapenik egin behar izan.

Arauaren aplikazioagatik judizializatutako kasuak

Orain arte ez da judizializaziorik egin bere aplikazioan.

no obligadas a presentar declaración del impuesto sobre sociedades. Por ello, se aprobó ampliar la exención del cumplimiento de la obligación de TB para ese colectivo.

Efectos producidos y correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados

No ha habido problemas en la aplicación del decreto foral-norma analizado. Las conclusiones y los objetivos alcanzados han sido adecuados.

Necesidades de desarrollo normativo

No ha habido necesidad de realizar ningún tipo de desarrollo normativo.

Casos de judicialización por aplicación de la norma

Hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.



Laburbilduz

Aztertutako foru dekretu-araua modu eraginkorrean bete da, inolako arazorik gabe haren aplikazioan, inolako eragozpenik gabe bereziki, eta orain arte ez da judicializatorik egin haren aplikazioan. Ondorioak onak izan dira eta ezarritako helburuak lortu dira.

En resumen

El decreto foral-norma analizado se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva, sin ningún tipo de problemas en su aplicación, sin ningún contratiempo en especial, y hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación. Las conclusiones han sido satisfactorias y se han alcanzado los objetivos establecidos.